

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak beren lankidetzaren estutu dute enpresa- eta ekonomia-arloan

Ayerdi lehendakariordea eta Tapia sailburua Gasteizen bildu dira, eta lankidetzarako lehentasunezko alor batzuei buruz hitz egin dute

Lunes, 23 de noviembre de 2015

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapia eta Nafarroako Gobernuako Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdi Gasteizen bildu dira gaur goizean; bilkura horren helburua ekonomia eta enpresako lankidetzaren estutzea izan da, industrian, berrikuntzan eta turismoan, bereziki.



Industria, berrikuntza eta turismoa izango dira lankidetzarako arloak.

Bilkura hori Iñigo Urkulluk eta Uxue Barkos Lehendakariak egindako bileraren jarraipena izan da.

Eusko Jaurlaritzaren egoitzan egindako bileraren aurretik, Tapiak eta Ayerdik ekonomia eta enpresako alorrean bi gobernuak lankidetzaren estutzeko agertutako konpromiso instituzionala adierazi dute, bi autonomia erkidegoetarako onuragarria izango dela irizten baitute.

Tapiak azpimarratu duenez, "Europar eskualdeek duten zereginaren aldarrikapenean" beharrezkoa da "Euskadi eta Nafarroaren gaitasunak batzea Europar era bateratu batean aurkezteko".

Ayerdik, berriz, gogora ekarri du "hainbat hamarkadatan" Euskadik eta Nafarroak "bizkarra emanda bizi izan direla enpresa-mailan". "Gure asmoa elkarrekin aurrera egitea da enpresaren eta gizartearen mesedetan", gaineratu du.

Industria, berrikuntza eta turismoa

Hedabideen aurrean erakutsitako konpromisoaz gain, lehendakariordea eta sailburua ordu eta erdiz batu dira, eta bertan erabaki dute industria, berrikuntza eta turismoa lankidetzarako lehentasunezko alorrak izan behar dutela.

Alde horretatik, ekimen eta sektore batzuk zehaztu dituzte eta, haien bidez, bi lurraldeen lehiakortasuna hobetzen lagunduko duten bide nahiz neurri zehatzak aztertuko dira; hala, bi aldeek onartu dute automobilgintza

funtsezkoa izango dela "irabazteko bat egite honetan".

Nazioartekotzea hainbat ikuspuntutatik joratu dute, bi gobernuek Vancuard Europako ekimenaren barnean daudela kontuan hartuz, eskualdeek Europaren lehiakortasunaren hobekuntzan inplikazio handiagoa izan dezaten; ez dira baztertzen , gainera, Euskadi nahiz Nafarroako enpresek interes komunak partekatuko dituzten merkatuak aztertzeko egon daitezkeen lankidetzak.

Klusterren politika, estrategia modura, eta turismoa, jarduera-eremu gisa, bilera horren edukiaren zati bat ere izan dira, eta alor horiei bi gobernuek jarraipena emango diete aldebiko bileren bitartez eta joratu beharreko gaien arabera.